

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Etetea hirigintza lizentzien eta baimenen ematea

Legutioko udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea izapidetzen ari da, udalerrri horretako industria lurzoruan jarduera kutsakorrenak mugatzeko.

Udalbatzak 2021eko otsailaren 4ko bilkura berezian hartutako erabaki bidez, eten egiten dira hirigintza lizentzien eta baimenen ematea, irismen eta eduki honekin:

Urtebetekoa izango da etenaldiaren gehieneko indarraldia.

Eteteak lursailen partelazioa eta eraikuntza, birgaitze eta eraipen obrak hartzen ditu barne.

Hauek dira eraginpean hartzen dituen hirigintza eremuak: industria erabilera kutsakorrenak eta ingurumenean eragin handiena dutenak garatzen diren eremuak (martxan jartzeko ingurumen baimen integratua behar dutenak). Hona hemen zerrendatuta:

Maderas San Blas OD-I1 industria zona

LLadie OD-I2 industria zona etena

Condesa OD-I3 industria zona

Laminaciones Arregui PERI – I4 industria zona

Goiain MOA-I5 industria zona

Lladie Ekialdea SI4 industria zona

Hala ere, indarreko plangintzarekin eta Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala behin betiko onartu ondoren aurreikusitako antolamenduarekin bateragarriak diren eraikuntzak eta jarduerak xede dituzten lizentzia eskaerak, edo –etendura indarrean jarri aurretik– Ingurumen Baimen Integratua dutenak, jardueraren funtsezko aldaketarik eragiten ez badute, izapidetu eta eman ahal izango dira, baldin eta aldaketaren idatz taldearen eta udal arkitektoaren oniritzi txostena badute.

Argitalpen horietako azkena egiten den egunean bertan hasiko dira erabakitako etenduraren ondorioak.

Legutio, 2021eko otsailaren 8a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO